actividades de la Sociedad y desde el Ayuntamiento se intenta dinamizarla en función de las posibilidades y demanda existentes.

Toman la palabra los concejales Sr. Otegui y Sra. Azanza, manifestando que Garaitzeko Asi no tiene ningún problema con el Ayuntamiento y si tiene problemas de funcionamiento es un tema interno de la asociación no del Ayuntamiento.

- En cuanto a la cantera de Mendiandi, responde el alcalde Sr. Irigaray que el informe es el que es, es decir con la normativa vigente no se puede instalar la explotación y ahora habrá que esperar también al informe que se encargó a los abogados Beaumont-Aristu.

- Por último, respecto a la "gaupasa" se le hizo la petición por correo electrónico y la trató con los miembros de su grupo y como ya en su grupo se opinaba que no debía darse autorización no le dio más relevancia al tema. Y en cuanto al pago de la luz, se deberá presentar la justificación de su uso.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21,40 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2014ko abenduaren 18an, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegi Echeverría, Luis De Potestad Tellechea eta Josu Martinez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

#### **1.-1.- 2014ko URRIAREN 7ko eta 17ko BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

Udalbatzak erabaki du aldeko bost botoz eta aurkako bi botoz (Martinez eta De Potestad) 2014ko urriaren 7an egindako osoko bilkura arruntaren akta onartzea eta 2014ko urriaren 17an egindako bilkura bereziarena aho batez onartu da.

De Potestad jk. hitza hartu du eta aipatu du ez dutela akta onartzen Saroberriko pasealekuaren lanei dagokien aurrekontuaren aldaketari dagokion puntuan ez baita aipatzen berak esan zuela hasierako partidatik egindako lanetara kostua asko igo zela iruditzen zitzaiola. Modu berean kontratazio espedientearen kopia eskatu du. Alkateak, Irigaray jk. erantzun dio De Potestad jaunari esanez aktari oharpenak egiteko epea izan duela eta ez duela oharpenik egin, eta beste aldetik, berak esan zuena bilkuran ere agertu beharko litzatekeela, azaldu baitzion hasieran aurreikusi ziren lanak baino gehiago egin direla eta hori azaldu zionean aldaketa aho batez onartu zela. De Potestad zinegotziak dio nahikoa garrantzizkoa dela iruditzen zaiola aktan aipatzeko, eta, hortaz, berriro dio ez duela akta hori onartuko.

## **2.- 2.- 2014ko URRIAREN 3tik ABENDUAREN 11ra ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak jakinarazi du 2014ko urriaren 3tik abenduaren 11ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

- De Potestad zinegotziak hitza hartu du eta esan du 137. ebazpenari dagokionez, Auritzeko Gazteriari frontoia erabiltzeko baimena ematen diona, eta zehazkiago 3. puntuan markagailu elektrikorik ez dagoela aipatzen baitu, eta galdetu du zergatik ez dagoen eta nola pasatu den horren beste denbora Udalak deus egin gabe. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du jaietan ohartu zirela markagailua falta zela, eta azkenean eskatzaileek beraiek zeukatela jakin zutela. Horregatik markagailua udaletxean gordetzen da eta behar denean uzten da.

- 139. zk. duen ebazpenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ez duen eskola garraioarentzako 1.500 €-ko laguntza ematen duena, De Potestad zinegotziak dio Udalak ez duela ezer erabaki gaiari buruz eta ez dagoela ados bideratu den moduarekin, ez baita batzorderik deitu gaiaz mintzatzeko eta Udalbatzarekin kontsultatu gabe egin baita, uste baitu gaia osoko bilkuran aztertu behar izan zela. Alkateak, Irigaray jk., dio uztailaren 22ko bilkuran jakinarazi zuela aztertzen ari zela garraioarentzako diru-laguntza emateko aukera eta bilerak izan zituela interesaturik dauden gurasoekin eta Erroibarko alkatearekin, gaiari elkarren artean irtenbidea emateko. Geroago, urriko osoko bilkuran, aurrekontu aldaketa onetsi zela aho batez, laguntza horri aurre egiteko, eta inork ez zuela kontrakorik ezer esan, hortaz, ez du ulertzen zergatik kexa hori.

- 146. zk. duen ebazpenari dagokionez, RCDen fidantza Miguel Tellecheari itzultzekoa, De Potestad jk. galdetu dio alkateari zergatik luzatu den gaia horrenbeste denbora berak dokumentazioa eta itzultzeko eskaera duela sei hilabete eman baldin bazizkion idazkariari, eta ez duela ikusten zein izan daitekeen horrenbeste luzatzearen arrazoia. Irigaray jk. erantzun dio ez zekiela gai horri buruz ezer irailiko feriaren egunean Tellechea jk. galdetu zion arte, eta berak galdetu zuela zer gertatzen zen espedientearekin eta irtenbidea urrian eman zitzaiola, gaia administrazio zerbitzuei dagokiela eta ez alkateari.

Idazkariak hitza hartu du eta erantzun du ez dakiela zergatik luzatu den horrenbeste, dena den ez dela alkatearen erantzukizuna, baizik eta berea, espedienteak ez dituela mahai azpian gordetzen eta funtzionamendu-arazoa izan daitekeela baina espero duela gaia argitzea berriro gerta ez dadin. De Potestad jk. dio duela egun batzuk banaketa egiteko eskaera aurkeztu duela eta espero duela horrenbeste ez luzatzea.

- Azkenik eta 153. zk. duen ebazpenari dagokionez, 2014-2015 epealdiko oihanetako lanetarako laguntzak arautzen dituen zirriborroaren alegazioak Landa Garapeneko Departamentuan aurkeztea ebazten duena, gaia bideratu den moduarekin ados ez dagoela dio, berriro ere ez baitzaio bere taldeari deus

esan. Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta azaldu du gaiari dagokionez Enrique Garraldak eta Daniel Irigoyenek deitu ziotela esateko elkartu behar zutela zirriborroa aztertzeko eta alegazioak edo iradokizunak elkarren artean aurkezteko, eta hori guztia egiteko epe motza izan zutela. Hortaz, eta azaroaren 10ean Aurizberrin mikologiari buruz Erroibarko Udalak antolatu zuen bileraz baliatuz, Aurizko Udaleko ordezkariak eta Areso, Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Artzibar eta Erroibarko ordezkariak elkartu ziren eta denen artean ebazpenean aipatzen diren alegazioak prestatu zituztela. Eta berriro esan du horrela egin zela denbora aldetik larri zenbiltzatelako. Martinez jk. dio alkateak esaten duena aitzakiak besterik ez direla, Erroibarko Udalak, zinegotzi batek, Juanarena jk., esanda, bilkuran onetsi baizituen. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du hori ezin dela horrela izan, Erroibarko udalak ez baitu bilkurarik egin urritik, eta alkatearen ebazpenaren bidez egin zirela.

### **3.- 2015eko ZERGA TASEN ONESPENA**

Alkateak proposatu du 2015eko zerga tasak onartzea, hona hemen:

- 1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
  - 2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
  - 3.-Ehuneko 3,99ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
  - 4.-1,37 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
  - 5.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.
  - 6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren arabera igotzea
- Martinez eta De Potestad zinegotziek hitza hartu dute eta esan dute Aurizko zerga tasak altuegiak direla eta KPIren igoera egonez gero, uste dutela ez dela aplikatu behar, jaitsiera egonez gero, berriz, bai.

Aho batez erabaki da 2015eko Zerga Tasak onartzea, baina Martinez eta De Potestad zinegotziek ez dute onartzen igoera baldin badago, bai berriz jaitsiera ematen bada.

- 1.-Ehuneko 0,2824ko karga-tasa jartzea hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 2.-Ehuneko 0,80ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3,99ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,37 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,2 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren arabera igotzea

#### **5.- TOKIKO BESTEN EGUTEGI PROPOSAMENA 2015. URTERAKO**

Alkateak, Irigaray jk. festen egutegia proposatu du eta aurten San Juan eguna asteazkena denez, gazteekin adostu beharko da bestak aurreratu edo nola egin, eta, hortaz, hemen aipatzen den proposamena aldatu daiteke.

Aho batez erabaki da tokiko festen egutegia hau izatea:

Inauteria otsailaren 14 eta 15a.

Eguberriko edo Gurutze Santuko Feria  
maiatzaren 3a

San Juan bestak ekainaren 23, 24, 25 26 eta 27a.

Eskulangintza Azoka

Abuztuaren 15a

Larrazkeneko feria.

Irailaren 20a

San Nikolas:

abenduarien

6a

#### **5.- 2015EAN BASO LANAK EGITEKO PROPOSAMENA ETA ALKATEARI ESKUMENA EMATEA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du aurten aurreikusita zegoela baso lanak egiteko laguntzen deialdia argitaratzea, oraindik ez dela argitaratu eta zirriborroa eginga dagoela, eta hari alegazioak egin zaizkiola, gai zerrendako bigarren puntuan aipatu den moduan. Zirriborroan proiektuak aurkezteko aurreikusten den epea motza da, 20 egunekoa, hortaz uste du proiektua eskatu behar dela eta hori dela eta Ekilaneke ingeniariarekin, Ana Ariz, eta Nafarroako Gobernuke mendizainekin elkartu zen, beharrezkoena eta interesgarriena izan zitekeena aztertu eta proiektuan sartzeko; horiek horrela zati nagusia burdin hesi bat berritzea izango litzateke, Antufa-Abrau-Antsobi eta Egiluz-Usategietako barrutiak, beste bat Menditxuriko atakatik Ostazuriraino eta beste bat Arritxipitik Xurigoaraino eta Teilako Iturritik Soldaduarriraino eta Tronatik Linduseraino; birsorkuntzako sasi-garbiketak Bagoaundin eta Ipetean eta suteei aurre egiteko sasi-garbiketak Lindusen; Urkitzeta, Errekagaitz, Esondoa, Kiñoeta eta Aranandin egindako basoberriketak mantentzeko lanak; Zaldua eta Zokoetakobitarteko Antsobi, Arrosariobidea eta Alzetakobitarteako bideetako ezponden garbiketa; Soroluzea, Jauregiaroztegi eta Antsobiko bideen zolaketak eta Arrobiko Bordetako zuhaitz zaharren lepaketa. De Potestad zinegotziak galdetu du lan horiek guztiek zenbateko kostua duten eta alkateak, Irigaray jk., erantzun dio oraindik ez dakiela, baina deialdia edozein momentuan argitaratu daitekeela eta proposatutako lanak laguntzeko dauden aukerak ikusiko dira, baina proiektuaren ideia orokorra onartu behar dela.

Alkateak, Irigaray jk., Ekilaneke prestatuko duen proiektuan sartzeko egin dituen proposamenak aho batez onetsi dira eta alkateari ahalmena eman zio laster argitaratuko den deialdian proiektua aurkezteko.

## **6.- KANPOSANTUKO SARIA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Adios aldizkariak antolatu duen lehiaketa, Espainiako kanposantu politenen lehiaketa, irabazi duela gureak eta 3.000 euroko saria jaso duela, Madrilen egin zen ekitaldian eman zizkiotela berari. Ekitaldian galdetu zitzairen zertan erabiliko zuten jasotako sariak, beraiek nahi zutelako kanposantuarekin zerikusia duen zerbaitekin gastatzea. Hortaz, proposatu du jasotako dirua kanposantuk arkitekturaren filosofia azaltzen duen horma-irudi bat egiteko erabiltzea, baita turistentzako eskuorri bat, eta herrian heriotzarekin zerikusia duten erritu eta antzekoen inguruko beste argitalpena bat egitea, bizilagunentzako. Modu berean jakinarazi du Miguel Gortari arkitektoaren familiak Udalari eskertu diola lana zabaldu izana eta Javier Zubiaurrekin harremanetan jarri dela, hilarrien inguruko jakintza handia baitu, gure herrikoak katalogatu eta argitalpen bat egin dezan Bianako Printzea aldizkarian.

Aho batez erabaki da sariaren bidez jasotako dirua alkateak, Irigaray jk., proposatu duena egiteko erabiltzea.

## **7.- 2015-2020 LGPren GAINEKO EBAZPENAREN BERRESPENA**

Ondoren Irigaray jk., jakinarazi du, 2015-2010 LGPri alegazioak aurkezteko 165 ebazpena eman zuela eta Landa Garapeneko Departamentuan aurkeztu zituela, eta ebazpen hori ez zegoela eguneko gaien zerrendako espedientean gai zerrenda prestatu baino beranduago egin zelako ebazpena, eta oso epe motza eman zutela horiek aurkezteko, baina ezarritako epean espedientean sartu zuela. Gainera, Udalek komunean aurkeztu behar zituzten proposamen batzuk, nahiz eta gero Udal bakoitzak bereak aurkeztu. Alkateak Cedernari pasatu zion berea eta Cedernak gainontzeko udalei informazioa eman zien. De Potestad zinegotziak hitza hartu du eta esan du berriro ere beraiekin mintzatu gabe eta batzordea deitu gabe aritu dela, eta nahiz eta edukiarekin ados egon ez dago ados aritutako moduarekin. Alkateak, Irigaray jk., erantzun dio De Potestad jk., eskualdeko hiru udaletako idazkaria denez, gaiaz bazekiela, mezu elektronikoak udal guztietara iritsi baitira, eta zerbait esan nahi izanez gero, egin ahal zuela, bizilagun gisa eta zinegotzi gisa.

Aho batez erabaki da, nahiz eta De Potestad zinegotziak egin duen oharpena kontuan hartuz, alkatearen 165. zkia. duen ebazpena berrestea.

## **8.- “NAFARROA BERE AUTOGOBERNUAREN ALDEKO MANIFESTUA” MOZIOA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du manifestu hori Osoko bilkuran aurkezten duela onartzeko, uste baitu forua ez dela pribilegioa baizik eta eskubidea, eta Espainiako Gobernuko erasoek esku-sartzea, foruaren aurka joatea eta Nafarroarekiko errespetu falta adierazten dutela.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du harritua dagoela eta pozik aldi berean, mozioa aurkeztu baita, are gehiago berak proposatu zuenean, baina bere taldeak proposatzen duena ez dela inoiz ere aurkezten, adibidez banderen

mozioa, besteak beste. Modu berean, mozioaren edukiari dagokionez, sorburu testuko esaldi bat ez da Udalari aurkeztu zaioneko testuan agertzen eta deigarria egin zaio.

Beste aldetik, Martinez jk. eskatu du erabakia honako helbidera bidaltzea: [navarraporsuaautogobierno@gmail.es](mailto:navarraporsuaautogobierno@gmail.es). Idazkariak hitza hartu du eta esan du berari posta elektronikoz iritsi zitzaiola eta bere horretan igorri ziola alkateari, batere aldaketarik egin gabe. Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du aldatu duen bakarra izan dela hasierako esaldia: "Aurizko Udala" sartuz, gainontzeko guztia posta elektronikoz iritsi bezala utzi duela.

Ondoren bozketa egin da eta aho batez erabaki da mozio hau onartzea eta Martinez jk. esandako helbide elektronikora igortzea:

*Aurizko Udalak, baldintza eta ideologi anizko herritarrez osatua, gure arbasoengatik jasotako autogobernuak jasaten dituen erasoak gaitzestu nahi ditugu. Zoritxarrez haiek egin izan zuten bezala, gure burujabetza irmo defendatzera behartuta gaude.*

*Lehenik eta behin, Espainiako gobernuak garatutako legez-kontrako eraso zentralistatik defenditzeko. Autonomi elkarte guztiak behartzen dituen Oinarritzko Legeriaren gehiegikeri edo autonomia eskaxeko Auzitegi Konstituzionalean hamaika helegiteren bidez autogobernu ahalmena erasotuz, badirudi gure autogobernuaren desagerpena besterik ez dutela helburu.*

*Horretaz gain, komunikabide eta zenbait indar politikoren eskutik, bidegabeki eta bere interesen alde, Forua pribilegiotzat jo eta nafarren elkartasun eza salatzen dutenen aurrean. Haiei gogorarazi nahi diegu Espainiako Konstituzioak eta bere lehen xedapen gehigarriak aitortutako autogobernua elkartasun handiko sistema dela, urtero argitaratutako datuek erakusten duten bezala.*

*Azkenik, Nafarroako Erresuma zaharraren oinordekotza jaso dugun nafarrok gure baldintzagabeko lege ahalmena erasotu nahi dutenen aurrean defendituko dugu, nafarroi dagokigulako bakarrik gure etorkizunaren erabakia.*

*Horregatik IRMO ESKATZEN DUGU:*

- Espainiako gobernuak, gure parlamentuan islatutako ahalmen legegilearen aurka aurkeztutako helegite guztien atzera-egitea.*
- Nafarroaren berezko kompetentzia eta ahalmenak zuzenki baldintzatzen dituen Oinarritzko Legeria guztiaren aplikaezintasuna aitortzea.*
- Espainiako Erresuma eta Nafarroaren arteko kompetentzia-gatazkak antolatuko dituen organo independente eta parekide baten sorrera.*
- Estatuarekin Ekonomia-hitzarmenaren berriztapena adostuko duen eta Nafarroako legebiltzarreko indar guztiak bilduko dituen foru-parlamentuko batzordea sortzea, legebiltzarra delako nafarron borondatea jasotzen duen erakundea.*

***Gora nafar askatasuna!***

***Gora Nafarroa eta bere foruak!***

**9.- EUSKARA TEKNIKARIAK ANTZINATASUNA ONARTU DIEZAIOTEN  
EGIN DUEN ESKAERA**

Euskara teknikariak antzinasuna onartu diezaioten eskatu du eta Irigaray jk. jakinarazi du 25 urte daramazkiela lanean eta, nahiz eta duen kontratuarengatik inplizituki ez dagokion, uste du Udalaren eskumena denez, antzinasuna onartu behar zaiola eta proposatu du 2015eko urtarrilaren 1etik aitzina ematea. Udalbatzak erabaki du aho batez Euskara teknikariak, Iribarren ak., eskatu duen antzinasuna onartzea eta erabaki honen berri Asesoria Indarra delakoari jakinaraztea, 2015eko urtarrilaren 1etik egoera eguneratu dezan.

#### **10.- MEZENASGOAREN LEGEAREN BABESPEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAN AURKEZTUTAKO ANTZINAKO HARRESIAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUAREN AURKEZPENA ONARTZEA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du azaroaren 18an Nafarroako Mezenasgoaren Legea azaltzeko Nafarroako Gobernuak antolatu zuen hitzaldira joan zela. Horretan aipatu zuten interesgarria zela deialdian aurkezteko kultur proiektuaren ideia edukitzea, eta, hortaz, proposatzen duela “Antzinako harresiak berreskuratzeko proiektua” aurkeztea. De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du proiektuaren zehaztasun historikoa zalantza jartzen duela eta, hortaz, Bianako Printzea erakundeari txostena eskatzea nahiko lukeela. Alkateak, Irigaray jk., dio Bianako Printzea erakundea izan zela hori esan zuena eta horrela dagoela jarria KIOeko Babes Plan Berezian, Erakundetik esan zuten bezala, eta paretak nola izan behar zuten ere zehazten dela. Martinez zinegotziak galdetu du nola izan behar duten paretak eta alkateak, Irigaray jk., esan dio harrizkoak izan behar dutela eta ez harlanduzkoak. De Potestad zinegotziak Bianako Printzea erakundeari txostena eskatu behar zaiola dio berriro ere. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du ez dela beharrezkoa, Babes Plan Berezian islatua dagoelako Bianako Printzea erakundeak hala eskatuta eta berak ezarritako baldintzetan.

Ondoren, erabaki da aldeko bost botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza, Irigaray eta Otegui) eta aurkako bi botoz (De Poestad eta Martinez), Bianako Printzeari txostena ez eskatzeagatik, Mezenastoaren Legearen babes pena egindako diru-laguntzen deialdira “Aurizko harresi zaharrak berreskuratzeko proiektua” aurkeztea.

#### **11.- MEDIKUAREN PISUAREN ALOKAIKURUA BERRITZEA**

Alkateak, Irigaray jk., esan du medikuaren pisuaren alokairua berritzeko proposamenari dagokionez, POCTEFA programaren barnean, udaletxe osoa berritu behar dela eta, hori onartuz gero eta proiektua aurrera egingo balu, 2016an egitea aurreikusita dagoela, eta, hortaz, proposatu du Suarez Arbilla jk. duen alokairua urte betez luzatzea.

Aho batez erabaki da Udal Plaza 1 zkia.-n “Medikuaren etxea” izenez ezagutua den pisuaren alokairua urte betez luzatzea Suarez Arbilla jaunari, 2015eko abenduaren 31 arte.

#### **12.- IRATI IRRATIAK 2014RAKO EGIN DUEN LAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Irati Irratiak 2014rako laguntza eskatu duela, aho batez erabaki da Irati Irratiari 420 € ematea 2014rako.

### **13.- NAFARROAKO ONDAREA DEFENDATZEKO PLATAFORMAK 2015ERAKO EGIN DUEN LAGUNTZA ESKAERA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta Nafarroako Ondarea Defendatzeko Plataformak egin duen eskaerari dagokionez esan du orain arte lan garrantzizkoa egin dutela, Nafarroatik haratago egin dela, Kordobako Mezkitaren kasua kontuan hartuta, eta nahiz eta Hipoteka-Lege berria onartu zenetik elizak ondasunak inmatriculatu ezin duen, legea indarrean jarri eta urte beteko epean bai egin ahalko duela eta, hortaz, lanean jarraitu behar da. Horiek horrela, urtero udalerrri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabeko kuota ordaintzeko eskaera ikusita, hori onartzea proposatu du eta dagokigun kuota 50 euro izango da.

Aho batez erabaki da, Nafarroako Ondarea Babesteko Plataformak egin duen eskaera onartzea eta urtero 50 euroko kuota ordaintzea.

### **14.- ANARASDEK “AMINETU HAIDAR TESTUAK PRESTATZEKO ZENTRO PEDAGOGIKOAREN FUNTZIONAMENDUA” IZENeko PROIEKTUARI LAGUNTZA EMATEKO EGIN DUEN ESKAERA.**

Ikusirik ANARASDek eskaera aurkeztu duela, aho batez erabaki da “Aminetu Haidar (IV) testuak prestatzeko zentro pedagogikoaren funtzionamendua” izeneko proiektuari 300 euroko laguntza ematea.

### **15.- OGASUN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MINISTERIOAREN FACE PLATAFORMA ERABILTZeko ERABAKIAREN PROPOSAMENA**

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du, besteak beste, faktura modu elektronikoa jasotzeko derrigortasunari aurre egiteko, beharrezkoa dela Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak sortutako Face Plataformari atxikitzeko erabakia hartu behar dela. Hartara, EUKFak erabaki-eredua igorri du eta udalbatzak aho batez onartu du:

*Jose Irigaray Gil jk., Aurizko Udalaren izenean, osoko bilkuraren erabakiaren bidez honakoa dio:*

Aurizko Udalak, 2014ko abenduaren 16an egin osoko bilkuran, aho batez onetsi zuen Estatuko Administrazio Orokorreko Faktura Elektronikoen Sarreraren Punto Orokorren Plataformari (FACE) atxikitzea, sistema hau gainerako administrazio publikoen eskura jartzen den puntutik eta plataforma hori erabiltzeko baldintzei jarraikiz, Zizur Zendeako Udalaren izenean 1.000 eurorainoko faktura luzatzen duten hornitzaileei faktura elektronikoa luzatzeko eta igortzeko betebeharra kenduta; hori guztia 2015eko urtarrilaren 15etik aitzina, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitateko erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legean biltzen diren gainerako baldintza eta salbuespenekin bat

Abenduaren 27ko 25/2013 Foru Legeak, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitateko erregistroa sortzeko, 2015eko urtarrilaren 15etik aitzina faktura elektronikoa luzatzeko betebeharra ezarri zuen eta arautegi berean gainerako baldintza eta salbuespenak aipatzen dira.

Aldaketa egin eta, ezarritako baldintzei jarraikiz, fakturak modu elektronikoan jasotzeko konpromisoari aurre egin ahal izateko, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak Estatuko Administrazio Orokorreko Faktura Elektronikoaren Sarreraren Puntu Orokorren Plataforma (FACE) sortu du, gainerako Administrazio Publikoen eskura jarritz.

Gauzak horrela, **ERABAKI DA:**

ENTITATEA eta bere Erakunde Autonomoak atxikitzea FACE entitate honen faktura elektronikoaren sarreraren puntu orokorra izan dadin. Plataforma hori erabiltzeko baldintzei jarraikiz.

Behean aipatzen diren pertsonen ahalmena ematea FACE plataformaren barnean eta Aurizko Udalaren izenean beharrezkoa den informazioa kudeatzeko.

Izena	Abizenak	IFZ	Kargua
Idazkariaren izena	Idazkariaren abizenak	Idazkariaren IFZ	Idazkaria
Kontuhartzailearen izena	Kontuhartzailearen izena	Kontuhartzailearen izena	Kontuhartzailea

## 16.- BESTERIK

### **Baso-jardueren proiektuaren auditoria**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Nafarroako Gobernuak proiektuaren auditoria egin duela eta ezponden garbiketan eta Esondoa eta Aranandiko landaketetan akats batzuk antzeman dituztela eta Udalak neguan zehar konponduko dituela.

Udalbatza jakitun da.

### **Alduden hautetsiek egindako bilera**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du urriaren 10ean Aldudeko telebistak antolatutako bilera egin zela, eta horretan gaur egungo egoera eta etorkizunari begirako aferak elkartrukatu zituztela Baztan, Esteribar, Urepel, Banka, Alduide, Luzaide eta Luzaideko hautetsiek, eta horri jarraipena emango zaiola Eugin, elkarren arteko loturak indartu dezaketen proiektuak mahai gainean jartzeko.

Udalbatza jakitun da.

### **Erro-Orreaga Fundazioa**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Fundazioa kitatzeko bilera egin dela eta Gobernu Kontseiluak joan den abenduaren 10ean desegin zuela fundazioa.

Udal honi 26.700 € dagozkiola eta Fundazioak ez duela ezer egin 2011tik eta ez direla sortu zeneko helburuak bete.

Udalbatza jakitun da.

#### **Goardia Zibileko kuartel-etxeko lursailaren katastro-aldaketa**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du lursail hori katastroan nola dagoen begiratu duela eta lursail osoa Udalaren izenean dagoela baina eraikina Barne Ministerioaren izenean dagoela.

Udalbatza jakitun da.

#### **Mikologia proiektua**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du joan den azaroaren 12an Aurizberrin Erroibarren prestatzen ari diren mikologiaren proiektua azaltzeko hitzaldia antolatu zela eta gure herrian izango duen eragina dela eta, Aurizko bizilagunak ere joan zitezkeela esan ziola Erroibarko alkateak eta hori jakinarazi zuela bando baten bidez. Herriko inor ez zela joan esan du eta horrek gaiarekiko interes falta adierazten duela eta gero bilketa kontrolatzeko neurriak hartzen direnean jendea kezkatzen dela.

Beste aldetik, jakinarazi du udan, Cedernaren bidez eta mendialde osoan, egin ziren mahai inguruen ondotik batzorde bat osatu dela produktuaren bilketa modu komunean arautzea lantzeko.

Udalbatza jakitun da.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du duela hiru urte bere taldeak proposamen bat ekarri zuela eta horretan biltzen zela, orokorrean, orain Erroibarko Udalak aurrera atera nahi duen proiektua. Proposamen hori bazeukan Erroibarko alkateak, Garralda jk., eta harekin egon zen bilera baino bi egun lehenago baina bera ezin izan zen joan. Hala ere, proposamena egin zuenetik hiru urte pasatu dira eta ez da ezer egin. Arazoa da gure taldeari ez zaiola kasurik egiten, etsai gisa hartzen gaituzue.

#### **Beitiko lixibategia**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du zerbitzu anitzetako langileak, gainontzeko kontratatuekin, eraikinaren teilatua konpondu duela egitura zaharra nibelatuz, isolatzeko egitura eta teila laua jarriz eta kanpoko paretak margotuz, eta egindako lana eskertu nahi duela emaitza oso ona izan baita.

Udalbatza jakitun da.

#### **Laster egingo den oihan salmenta**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du aurreko osoko bilkuran jakinarazi zuela Antsobin oihan lote bat salduko dela eta ahaztu zitzaizola horrekin batera beste lote bat salduko dela Bidausin, Añoberrietan.

Udalbatza jakitun da.

#### **Bidausi zaborren Mankomunitatea**

Alkateak jakinarazi du Bidausi Mankomunitateak estatutuen 13. artikulua aldatzeko erabaki hartu duela eta jendaurrean dagoela, epea pasatzen denean udaletako osoko bilkuretan onetsi behar da.

Udalbatza jakitun da.

## **17.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

- Martinez zinegotziak hitza hartu du eta honakoak mahaigaineratu ditu: Frontoian argia edukitzeko ordaintzen dena, ekipamendu bakoitzeko bi euro ordu batengatik, garestiegia iruditzen zaio eta uste du berrikusi beharko litzatekeela eta haurrentzako doan jarri.

Kultur Etxeari dagokionez galdetu du etxe horretako inbentarioa egina dagoen, liburutegia desordenaturik eta katalogatu gabe baitaude jasotzen diren liburuak eta nor den horren arduradun egoera horri aurre egiteko. Uste duela inbentarioa ez badago edo zaharkitua baldin badago egin behar dela.

- De Potestad jk. dio Wifiri dagokionez nola dagoen eta zer egin egin den gaiari buruz. Modu berean bizilagun batzuk TDTri buruz galdetu dute. Azken gai horri dagokionez, Azanza zinegotziak hitza hartu du eta esan du Belzunze teknikariarekin egon dela eta esan diola Nafarroako Gobernuak egokigailua jarri behar duela Girizuko errepikagailuan.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du Udalak kultur etxea erabiltzeko kobratzen dituen tasei buruzko irizpideak zeintzuk diren, aurreko bilkuran alkateari galdetu zionean ordenantzaren arabera egiten dela esan ziola eta ordenantza hori idazkaritzan eskatu zuenean ez dagoela esan ziotela, eta berari, 2011ko abenduaren 22ko ebazpenaren bidez ehiztari elkarteak bilera egiteko tasa bat kobratu ziotela eta orain, bera ez dagoenean elkarte horretan, ez dela kobratzen. Uste duela gaia ez duela zertan alkatearen iritzia menpe egon behar eta arautegi bat onartu beharko litzatekeela eta gaia asko kezkatzen diola.

Mendiaundiko harrobiari eta aurreko bilkuran aipatutako hirigintza txostenari dagokionez, esan du Aurizko arautegiak dioen moduan, ezin dela egin baino horrek ez duela esan nahi arautegia aldatu ezin denik.

Joan den abenduaren 15eko NAOn 6/90 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea argitaratu zen eta horretan zerbitzu administratiboan afera kontuan sartzen denez, zerbait egiten ari diren galdetu du.

Eta azkenik esan du Ander Otegik galdetu ziola zergatik ez zuen iritzirik eman Udalari gaupasa bat egiteko egindako eskaerari buruz, berak ez zekiela zertaz ari zen esan ziola, berari inork ez diola horretaz deus esan eta galdetu du zergatik ez zaien gaiari buruz ezer aipatu. Eta esan ziola baita oraindik ez diotela ordaindu pilota txapelketan argian gastatutakoa.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta Martinez eta De Potestad zinegotziei erantzun hauek eman dizkie:

- Frontoiko argiteriari dagokionez, Martinez jk. dioena ez da bideragarria, ekipamenduak ez baitu desberdintzen nor den erabiltzailea eta nahiz eta bi euro kobratu gastua ez da estaltzen, eta nahiz eta egia izan lau euro, bi ekipamendu bakoitzeko, diru asko dela haurrentzako, egia da baita ere ez dela beharrezkoa piztea, gehienetan argi naturala dagoelako eta aurreko legegintzaldian foku batzuk jarri baitziren argiteria publikoari konektatuz eta horiek gaueko 9ak arte daudela biztuta. Beraz, futbolean eta antzekoetan aritzeko nahikoa da. Azanza zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere ustez, eta bera anitzetan joaten da semearekin, nahiko dela haurrak joaten direnean

dagoen argiarekin, normalean klaseak bukatuta joaten baitira. Martinez jk. hitza hartu du eta esan du berak ez zuela argiarengatik kobratuko. Otegi jk. dio bera haurra zenetik beti ordaindu izan dela frontoiko argiarengatik.

- Kultur Etxeko materialaren inbentarioari dagokionez, badagoela dio, eta Martinez jk. horren kopia eskatu du. Liburutegiari dagokionez, Irigaray jk. esan du ez dagoela horretaz arduratzen den inor duela denbora asko, gaia 2003tik datorrela, orduan eraman baizen liburutegia Kultur Etxera, eta ordutik ez dagoela liburuak sailkatzen dituen inor. Martinez zinegotziak dio gaiari heldu beharko litzaiokeela, alkatearen erantzukizuna dela eta antolatu behar dela. Otegi jk. dio liburutegia antolatzea eta martxan jartzea zaila eta garestia dela, eta liburutegiko materiala Aurizberrikora eraman beharko litzatekeela. De Potestad jk. dio Ariben zegoen liburutegia ere gaizki eraman zela eta azkenean Aurizberrira eramana zela materiala. Otegi zinegotziak dio zabor edukiontzietara eraman zela.

- Wifi sareari dagokionez gaia lantzen ari da eta Oyarbide zinegotziak ari da horretan arduratzen eta teknikariarekin mintzatzen saiatu bada ere ez duela lortu, baina jaso duen informazioaren arabera, hartu zen erabakia berrikusi beharko litzateke, ez baitago bermatua zerbitzua modu egokian ematen denik.

- Administrazio zerbitzuei dagokionez, alkateak, Irigaray jk., erantzun du argitaratu den legearen aldaketa oso interesgarria dela Erroibar, Orreaga eta Aurizko Udalantzako eta hiru alkateek horrela adierazi dutela aukera izan duten aldiro. Izan ere heldu asteartean Udalen Batasuneko bilkura berezia deitu du.

- Kultur Etxeko tasei eta Ehiztari Elkarteari kobratu zaionari dagokionez, alkateak, Irigaray jk. erantzun du ordenantzarik ez dagoela baina arautegiak ahalmena ematen diola alkateari horrela aritzeko. Dena den, arraroa iruditzen zaio orain arte ezer ez esatea, 2003tik horrela egin izan bada eta berak irizpide berbera jarraitu badu, are gehiago De Potestad j. Ehiztari elkarteko buru eta Garaitzeko Asi elkarteko buru izan denean eta urte horietan ezer esan ez duenean. Tarifak ordaintzeko irizpideari buruz, alkate den heinean herriko elkartei ordaintzetik salbuestea erabaki zuen, kultur etxea erabiltzeko oztopoa baitzen, eta bera kultur etxea egiteko proiektuaren aurka egon da beti uste baitu egin zenean bestelako obrak ere egin ziren baina helburuak argi eduki gabe, baina, egina dagoenez, uste du ahal den gehien erabili behar dela eta horregatik irizpidea aldatu zuen, herriko bizilagunek sustatzen duten edozein jarduera garatzeko tasarik ez dela kobratu behar, eta horrek ez duela esan nahi eskatzailearen arabera irizpideak aldatzen direnik.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan dio alkateari, Irigaray j., bere aurretik egon zirenek Kultur Etxea dinamizatu zutela, hitzarmena sinatuz Garaitzeko Asi elkartearekin. Orain, berriz, ez dago ezer, ez da Garaitzeko Asirekin lan egiten oraingo alkatea Udalean sartu zenetik, eta uste duela Kultur Etxea ez dela behar bezala dinamizatzen. Irigaray jk., alkateak, hitza hartu du eta esan du hori ez dela egia, beti lagundu direla Elkarte horrek antolatu dituen jarduerak eta Udala saiatzen dela kultur etxea dinamizatzen dauden aukeren eta eskaeren arabera.

Otegui eta Azanza zinegotziek hitza hartu dute eta esan dute Garaitzeko Asi elkarteak ez duela batere arazorik Udalarekin eta funtzionamendu arazoak baldin baditu elkartearenak direla eta ez Udalarenak.

- Mendiandiko harrobiari dagokionez, alkateak, Irigaray jk., erantzun du txostenaren arabera ezin dela ustiakuntza ezarri eta orain itxaron beharko dela Beaumont.-Aristu abokatuak egingo duten txostenari.

- Azkenik, gaupasari dagokionez, eskaera posta elektronikoz aurkeztu zuten, bera bere taldeko kideekin mintzatu zela eta baimenik ez zela eman behar iruditzen zitzaienez, garrantzi gehiago ez ziola eman gaiari. Eta argiaren ordainketari dagokionean, lehenengo erabili izanaren frogagiriak aurkeztu beharko dira.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 21,40ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.